



Zinexit

Giza Eskubideen 11. Zinema Erakustaldia
11ª Muestra de Cine y Derechos Humanos

2021

Giza Eskubideen 11. Zinema Erakustaldia

11ª Muestra de Cine
y Derechos Humanos

BILBAO

Azaroak 22 – 26 Noviembre

www.zinexit.net



BERGINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES



Zinexit

Giza Eskubideen 11. Zinema Erakustaldia

11ª Muestra de Cine
y Derechos Humanos

BILBAO

Azaroak 22 – 26 Noviembre



ZINEMA
ETA GIZA ESKUBIDEAK
CINE Y DERECHOS HUMANOS



Zinexit
Giza Eskubideen 11. Zinema Erakustaldia
11ª Muestra de Cine y Derechos Humanos

BILBAO2021
AZAROA 22-26
22-26 NOVIEMBRE
Golem Alhóndiga
Sarrena Dohainik. Entrada Gratuita
www.zinexit.net



2020. urtean pandemiaren ondorioz zinema-erakustaldia bertan behera utzi ostean, aurten energia berriekin gatoz, Zinexit Giza Eskubideen XI. Zinema Erakustaldia aurkeztera.

Iragan urriaren 5ean, lehen aleaz gozatu ahal izan genuen, "Non dago Mikel?" dokumental lazgarriarekin. Filmaren ostean solasaldia egon zen, Mikel Zabalzaren arrebak, Idoiak, gidatuta. Bertan, jendea adi egon zen, eta familiarenganako enpatia eta babesa gailendu ziren, gertatu zen horren gaineko egia bilatu eta justizia eskatzeko lanean.

Aurten, luxuzko kartela daukagu, tartean, besteak beste: "Nuestras vidas como refugiados en Europa" labur dokumentala, Goya 2020 saria; "Paris Stalingrad" filmaren estrainaldia; "La leyenda negra", Zinegoaken 2021eko Jaialdiko "Aniztasuna eta Giza Eskubideak" saria; "The Cave", zinemako hainbat jaialditan sari asko jasotakoa eta Oscarretarako izendatua 2020an; eta oraintsu estreinatutako "Maixabel". Azken horren ostean, filmeko benetako protagonistarekin hitz egin ahal izango dugu, Maixabel Lasarekin. Gainera, azaroaren 26an (ostirala), pantaila handian ikusi ahal izango dugu zinemaren historian gerraren aurka egin den film onenetako bat, Stanley Kubrickek zuzendutakoa 1957an: "Senderos de Gloria".

Sei film edo dokumental hauen bidez, aurten barkarkako eta taldeko borrokek giza eskubideen defentsan duten zeregina ikuskarazi nahi da. Borroka horiek datzuetan heroikotzat jo litezke, norbanakoa sakrifikatzen baitute ongizate komun eta kolektiboaren mesedetan, sarritan beren bizitzak eta askatasunak arriskuan jarri.

Era berean, Bilboko Udaleko Bosa! Programarekin lankidetzan jarraituko dugu eta Zinexit Eskola ospatuko dugu, Eric Tostiren "Terra Willy" filmarekin.

Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzak gonbidapena luzatzen dizue azaroaren 22tik 26ra Azkuna Zentroko Golem zinemetan parte hartu eta inguratzen eta kezkatzen gaituzten gaiak buruz hausnartu eta eztabaidatzeko, zinema bihurtuz hausnarketa eta pentsamendu kritikoa sustatzeko tresna.

Tras tener que suspender la Muestra en el año 2020 por la pandemia, volvemos con energías renovadas y os presentamos la XI Edición del Zinexit, Muestra de Cine y Derechos Humanos.

El pasado 5 de octubre, pudimos disfrutar de un aperitivo con el desgarrador documental "Non dago Mikel?". El debate posterior a la película, de la mano de la hermana de Mikel Zabalza, Idoia, mantuvo la atención del público asistente, generándose un ambiente de empatía y acompañamiento a la familia en su búsqueda de la verdad sobre lo ocurrido y en su demanda de justicia.

Este año la Muestra presenta un cartel de lujo en el que contamos, entre otros, con el Corto documental "Nuestras vidas como refugiados en Europa", premio Goya 2020; el estreno de "Paris Stalingrad"; "La leyenda negra", premio "Diversidad y Derechos Humanos" del Festival Zinegoak 2021; "The Cave", documental multipremiado en diferentes festivales de cine y nominado a los Oscar 2020; y la recientemente estrenada "Maixabel", tras cuyo visionado podremos debatir con la auténtica protagonista de la película, Maixabel Lasa. Además, el viernes 26 de noviembre, tendremos la oportunidad de disfrutar en pantalla grande de uno de los mejores filmes antibelicistas de la historia del cine, dirigido por Stanley Kubrick en 1957, "Senderos de Gloria".

Se trata de seis películas o documentales que este año tratarán de visibilizar el papel de las luchas individuales y colectivas en defensa de los derechos humanos. Luchas que a veces podríamos calificar como heroicas, que sacrifican lo individual a favor del bienestar común y colectivo, poniendo en riesgo en numerosas ocasiones sus propias vidas y libertades.

Así mismo, mantendremos la colaboración con el programa Bosa! del Ayuntamiento de Bilbao y celebraremos el Zinexit Eskola, con la película "Terra Willy" de Eric Tosti.

Desde la Dirección de Derechos Humanos, Víctimas y Diversidad os animamos a participar los días 22 a 26 de noviembre en los cines Golem del Azkuna Zentroa y a reflexionar y debatir sobre temáticas que nos rodean y nos preocupan, utilizando el cine como medio para fomentar la reflexión y el pensamiento crítico.

Monika Hernando Porres

Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun zuzendaria.
Directora de Derechos Humanos, Víctimas y Diversidad.

Zinexit

Programazioa / Programación

BILBAO. GOLEM AZKUNA ZENTROA.

FILMA / PELÍCULA	EGUNA / DÍA	ORDUA / HORA	ARETOA / SALA
Nuestra vida como niños refugiados en Europa (Cortometraje) Paris Stalingrad	Astelehena 22 Lunes	19:30	4
La leyenda negra	Astearte 23 Martes	19:30	4
The Cave	Asteazkena 24 Miércoles	19:30	4
Maixabel	Osteguna 25 Jueves	19:30	1
Senderos de gloria	Ostirala 26 Viernes	19:30	4

SARRERAK

Programa honetako edozein film ikusteko, eskatu doako sarrera leihatilan, SAIOAREN EGUN BEREAN, 18:30etik aurrera.

Sarrera librea da, aretoko edukiera bete arte.

ENTRADAS

Para acceder a cualquier película de este programa es necesario pedir la entrada gratuita en la taquilla EL MISMO DÍA DE LA SESIÓN a partir de las 18:30.

La entrada es libre hasta completar el aforo de la sala.

Astelehena 22 Lunes

Nuestra vida como niños refugiados en Europa

España, 2018, 15 min. VOSE.
Dokumentala

Zuzendaria/Directora: Silvia Venegas.

Ekozketa/Producción: Juan Antonio Moreno Amador, Silvia Venegas.

Gidoia/Guión: Silvia Venegas.

Argazkia/Fotografía: Alberto González Casal.

Muntaia/Montaje: Silvia Venegas, J. A. Moreno Amador.

Aktoreak/Intérpretes: Arwa, Abdullah, Rawan, Lava, Boss, Sefora, Rojda, Amir, Mohammed, Mohammed, Nahara, Alisina, Ali Reza, Vali, Ghodrat, Elham.

Miloi bat haurrek baino gehiagok bilatu dute babela Europa, horietako askok bakar-bakarrak. Gerratik ihes egin duen belaunaldi oso bat da; eta, orain, ez dira haurrak eta burokrasia, mesfidantza, itxaronaldia, frustrazioa, ulertezintasuna eta beldurra gainditu behar dituzte. Dokumental honek zuzenean haien begiei begiratzen die, eta haien iritziak, sentimenduak, desioak, abestiak... entzuten ditu.

2020KO GOYA SARIA FILM LABUR
DOKUMENTAL ONENARI

"Dokumentalaren helburua da garai nahasi hauetan topaleku bat bilatzea, Europara iritsi diren adingabe errefuxiatuak entzun, ezagutu eta ulertzeko. Ahulena dira, eta haiekin izaten dugun jarrerak haien etorkizuna eta gurea markatuko ditu. Gloria Fuertes poetak hauxe idatzi zuen: 'Aberria ez da ez bandera ez pistola, aberria begiratzen gaituen haurra da'."
(Silvia Venegas, zuzendaria)



Más de un millón de niñas y niños han buscado refugio en Europa, muchos de ellos completamente solos. Toda una generación que ha huido de la guerra y que ahora, no son menores y tienen que enfrentarse a la burocracia, la desconfianza, la espera, la frustración, la incomprensión y el miedo. Este documental mira directamente a sus ojos y escucha sus opiniones, sus sentimientos, sus deseos, sus canciones...

PREMIO GOYA 2020 AL MEJOR
CORTOMETRAJE DOCUMENTAL

"El objetivo del documental es buscar un lugar de encuentro en estos tiempos convulsos para escuchar, conocer y entender a los menores refugiados que han llegado a Europa. Son los más vulnerables y nuestra actitud hacia ellos marcará su futuro y el nuestro. Como escribió la poeta Gloria Fuertes: 'La patria no es una bandera ni una pistola, la patria es un niño que nos mira'."
(Silvia Venegas, directora)



Astelehena 22 Lunes

Paris Stalingrad

Francia, 2019, 86 min. VOSE. Dokumentala

Zuzendariak/Directores: Hind Meddeb, Thim Naccache.

Ekoizketa/Producción: Sylvie Brenet, Abel Nahmias.

Argazkia/Fotografía: Hind Meddeb, Thim Naccache.

Soinua/Sonido: Damien Tronchot.

Muntaia/Montaje: Sophie Pouleau.

Aktoreak/Intérpretes: Tanit Souleymane Mohamad,

Valérie Osouf, Agathe Nadimi, Lami T. Nagawo,

Adam Misscall, Galaxy Mohammad, Johan Corceron

2016ko uda, Paris, errefuxiatuak Stalingrad barrutian kanpatu dira, haien egoera erregularizatzeko zain dauden bitartean.

Hind Meddeb-ek eta Thim Naccache-k eguneroko bizitza filmatu dute mugako eremu horretan, Parisen erdi-erdian. Labirinto burokratikoari erantsitako labirinto fisikoa: hiria urruntzen ari da. Kontrolak, polizia-sarekadak, hesiak. Nola bizi zaitezke existitzea galarazten dizun espazio batean? Errefuxiatuak kalean bizirautean saiatzen dira, kolektibo bat sortzen da eta bizikidetzat ezartzen da. Taldetik kanpo, Souleymane-n ahotsa entzungo dugu. Souleymane Darfourreko gazte errefuxiatua da, eta haren poemak zinemagilearen off ahotsarekin nahasten dira. Filmak Parisko ibilbideei jarraitzen dien heinean, beste bidaiak batek forma hartzen du: istorio zatikatuak Libia, Vintimille, Calais gogora ekartzen dituzte. Bidaiak partekatu baten oihartzunak. Eoleko lorategitik hiriko ingurabideko errepideetaraino, gorputzek isolatuta amaitzen dute kanpoaldean. Souleymanek taldea uzten du, kamerak jarraitu egiten du, bakarrik ihes egiten du. Taldea banandu egiten da, koadrotik desagertu, baina filma leku baten oroitzapen gisa ikusten da, Stalingrad, elkarrekin biziraun nahi zuten lekua.

Verano de 2016, París, los refugiados acampan en el distrito de Stalingrad mientras esperan para regularizar su situación.

Hind Meddeb y Thim Naccache filman la vida cotidiana en este espacio fronterizo en el corazón de París. Un laberinto físico agregado al laberinto burocrático: la ciudad se aleja. Controles, redadas policiales, vallas. ¿Cómo puedes vivir en un espacio que te impide existir? Las personas refugiadas intentan sobrevivir en la calle, surge un colectivo y se establece la convivencia. Desde fuera del grupo, escuchamos la voz de Souleymane, un joven refugiado de Darfour cuyos poemas se mezclan con la voz en off del cineasta. A medida que la película sigue los itinerarios en París, otro viaje toma forma: historias fragmentadas evocan Libia, Vintimille, Calais. Ecos de un viaje compartido. Desde el jardín de Eole hasta las carreteras de circunvalación de la ciudad, los cuerpos terminan aislados en las afueras. Souleymane abandona el grupo, la cámara lo sigue, escapa en solitario. El colectivo se separa, desaparece del cuadro, pero la película existe como el recuerdo de un lugar, Stalingrad, donde se trata de sobrevivir juntos.

Mahai-ingurua

Silvia Venegas, zuzendaria.
CEAR Euskadi

Coloquio

Silvia Venegas, directora.
CEAR Euskadi

La leyenda negra

Francia, 2019, 94 min. VOSE. Fikzioa

Zuzendaria/Directora: Patricia Vidal Delgado

Gidoia/Guión: Patricia Vidal Delgado

ekoizleak/Productores: Alicia Herder, Marcel Pérez

Argazia/Fotografía: Matt Maio

Musika/Música: Sebastian Rizo

Muntaia/Montaje: Steven Moyer

Aktoreak/Intérpretes: Monica Betancourt, Kailei

López, Irlanda Moreno, María José Fernández, Sammy Flores, Justin Ávila, Jessica Moore, Okey Onyluke.



Aniztasunaren eta Giza Eskubideen Saria Zinegoak 2021 Jaialdian.

Aleteia nerabea Comptoneko institutu batera eraman berri dute, eta lagun berriak egin nahi ditu. Estatu Batuetan hazitako salvadortar immigrante gisa, Aleteiak aktibismo klandestino erabiltzen du entzunarazteko, baina immigrazio-arau berriek bere etorkizuna arriskuan jartzen dute ustekabeen.

Patricia Vidal Delgado zuzendariak heldutasunezko istorio hunkigarri eta ziragarria sortu du. Istoria tentsio eta haustura handiko testuinguru sozial batean garatzen da. Izan ere, neurri berean harrapatzen ditu komunitateei eragiten dieten zurrumbilo politikoak eta nerabezaroaren dinamika korapilatsuak. Hori dela eta, La Leyenda Negra (2020an estreinatu zen Sundanceko Zinemaldian) sakrifizio pertsonalen prezioa eta benetako harremanen salbuespena aztertzen ditu, zuri-beltzeko argazkigintza paregabe batean eta aktore gazte talde batek adierazitako emozioen garbitasunean oinarrituta.

Mahai-ingurua

Aimar Rubio, Amnesty International Euskadiko aniztasun afektibo-sexualeko taldearen koordinatzailea.

Alaitz Arenzana, Zinegoak Bilboko Gaylesbitrans Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiko zuzendaritza batzordea.

Premio "Diversidad y Derechos Humanos" en el Festival Zinegoak 2021.

La adolescente Aleteia acaba de ser trasladada a un nuevo instituto en Compton y quiere hacer amistades nuevas. Como inmigrante salvadoreña criada en Estados Unidos, Aleteia ha hecho del activismo clandestino su cimiento para hacerse escuchar, pero las nuevas normas de inmigración ponen en peligro su futuro inesperadamente.

La directora Patricia Vidal Delgado crea una conmovedora y emotiva historia de madurez que se desarrolla en un contexto social tenso y fracturado. Capturando por igual las turbulencias políticas que afectan a las comunidades y la complicada dinámica de la adolescencia, La Leyenda Negra (estrenada en 2020 en el Festival de Cine de Sundance) examina el precio de los sacrificios personales y la excepcionalidad de las relaciones verdaderas, apoyándose en una extraordinaria fotografía en blanco y negro y en la pureza de las emociones expresadas por un conjunto de jóvenes actrices y actores.

Coloquio

Aimar Rubio, Coordinador del Equipo de Diversidad afectivo-sexual de Amnistía Internacional Euskadi.

Alaitz Arenzana, Comité de dirección de Zinegoak, Festival de Cine y Artes Escénicas gaylesbitrans de Bilbao.



Asteazkena 24 Miércoles

The Cave

Siria, Dinamarca, Alemania, USA, Catar,
2019, 95 min. VOSE.

Dokumentala.

Zuzendaria/Director: Feras Fayyad.

Gidoia/Guión: Alisar Hasan, Feras Fayyad.

Ekozizleak/Productores: Kirstine Barfod, Sigrid Jonsson
Dyckjær.

Argazkia/Fotografía: Mohammad Kheir, Ammar Suleiman,
Mohammad Eyad.

Musika/Música: Mathew Herbert.

Muntaia/Montaje: Per K. Kirkegaard, Denniz Göl Bertelsen.

The Cave filma hainbat zinema-jaialditan saritu dute, eta Oscar sarietarako ere izendatu dute. Filmak Ghoutako (Siria) ospitaleko pertsonaia batzuen borroka eta sakrifizio pertsonala kontatzen ditu: Amani Ballor, 30 urteko pediatra; Salim doktorea eta Samaher erizaina, eta haien ospitaleko kideak. Herrialde horretako biztanleak gerran daude, eta bonbardaketak eta baliabide-eskasia erabatekoa da.

Ghoutako mediku-zentro guztiak hondatuta geratu zirenean, bonbardaketetatik bizirik atera zirenak ospitale berri bat eraikitzen hasi ziren lurpean, eta hiri osoa tunelen bidez lotu zuten. Urte askoan, ospitale hori miraria izan zen eta siriar asko salbatu zituen. Egunerokotasun kaotikoan, apokalipsi osteko kobazulo erraldoi hartan, kaosaren parametroen barruan jarduten zuten beti doktoreek, eta lan egiten zuten emakumeenganako mespretxua jasaten zuten; emakume horietako bat zen Amani doktorea. Bere lankide medikoeak bakarrik tratatzen zuten milaka bizitza salbatu zituen pertsona batek merezi zuten errespetuarekin.

Azken eraso kimikoak, 2018ko martxoan Ghoutan erregistratuak, ospitalea betiko ixtea eragin zuten, eta betiko ezgaitu zuten Amani doktorearen lan gogoangarri eta epikoa.

Nominado a los Oscar y multipremiado en varios festivales de cine, The Cave narra la lucha y el sacrificio personal de Amani Ballor, una pediatra de 30 años, el doctor Salim y la enfermera Samaher y sus compañeras en un hospital de Ghouta, Siria, bajo los bombardeos y la absoluta escasez de medios en la guerra que ha asolado a los habitantes de este país.

Quando todos los centros médicos de Ghouta quedaron en ruinas, los supervivientes de los bombardeos empezaron a construir un nuevo hospital bajo tierra que conectaría toda la ciudad mediante túneles. Durante años este hospital fue un milagro que salvó a muchos sirios. En el caótico día a día en esa gigantesca cueva posapocalíptica, los doctores siempre actuaban dentro de los parámetros del caos y soportando el desprecio hacia las mujeres que trabajan, como la doctora Amani. Tan solo sus colegas médicos la tratan con el respeto que merece un ser humano que ha salvado miles de vidas en circunstancias límite.

Un último ataque químico, registrado en marzo de 2018 en Ghouta, forzó el cierre permanente del hospital, inhabilitando para siempre la memorable y épica labor de la doctora Amani.

Mahai ingurua

Izaskun Arriaran, Itsas Salbamendu Humanitarioko erizaina eta boluntarioa.

Coloquio

Izaskun Arriaran, enfermera y voluntaria de Salvamento Marítimo Humanitario.

Osteguna 25 Jueves

Maixabel

España, 2021, 83min, VOE, Fikzioa.

Zuzendaria/Directora: Icíar Bollaín

Gidoia/Guión: Isa Campo, Icíar Bollaín

ekoizleak/Productores: Guadalupe Balaguer, Koldo Zuazua, Juan Moreno, Guillermo Sempere

Argazia/Fotografía: Javier Agirre

Musika/Música: Alberto Iglesias

Muntaia/Montaje: Nacho Ruiz Capillas

Aktoreak/Intérpretes: Blanca Portillo, Luis Tosar, María Cerezuela, Urko Olazabal, Tamara Canosa, Arantza Aranguren, Mikel Bustamante, Martxelo Rubio

“Maixabel Lasa erreferente bihurtu da, gaur egun Euskal Herria iragaten ari den bizikidetzarako bidean. Maixabelek gauza guztiz gizatiarra egiten du: 2000. urtean Juan María Jáuregui senarra hil zuten gizonen aurre egiten die, jasandako mina jakinarazteko, beraiek bakarrik erantzun ditzaketan galderen erantzunak eskatzeko, eragindako mina biziki sentitzen dutela esaten entzuteko eta hitz horietan zintzotasuna dagoen baloratzeko.

Beste aldetik, bi gizon hauek bidaia luze eta zaila egin dute: atzean utzi dituzte egun batean pistola bat hartzera bultzatu zituzten justifikazioak, bakarrik, aurrez aurre, egin dutenarekin geratzeko.

Indarkeriak dituen ondorioak eta bizitzaren kostua aztertzen ditu filmak, batez ere indarkeria jasaten duenarentzat, baina baita indarkeria erabiltzen duenarentzat eta indarkeria bizi duen gizarte osoarentzat ere. Maixabel filmaren bidez, gure iragan hurbileko istorio hau kontatu nahi izan dugu emozioz, zintzotasunez eta, batez ere, protagonistekiko errespetu handiz”. (Icíar Bollaín, zuzendaria)



“Maixabel Lasa se ha convertido en un referente en el camino que hoy transita el País Vasco hacia la convivencia. Hay algo profundamente humano en lo que hace Maixabel: encararse con los hombres que mataron en el año 2000 a su marido, Juan María Jáuregui, para hacerles saber el dolor sufrido, para pedir respuestas a las preguntas que solo ellos pueden contestar, para escucharles decir que lamentan profundamente el dolor causado y valorar si hay sinceridad en esas palabras.

Por el otro lado, estos dos hombres han hecho un largo y difícil viaje: han dejado atrás las justificaciones que un día les empujaron a empuñar una pistola para quedarse a solas, cara a cara, con lo que han hecho.

La película aborda las consecuencias y el coste humano que tiene la violencia, sobre todo para quien la sufre, pero también para quien la ejerce y para toda la sociedad que la alberga. Con Maixabel hemos querido contar esta historia de nuestro pasado reciente con emoción, sinceridad y, sobre todo, mucho respeto por sus protagonistas”. (Icíar Bollaín, directora)

Mahai ingurua

Maixabel Lasa.

Coloquio

Maixabel Lasa.



Ostirala 26 Viernes

Senderos de gloria

USA, 1957, 88 min. Fikzioa

Zuzendaria/Director: Stanley Kubrick.

Gidoia/Guion: Stanley Kubrick, Calder Willingham, Jim Thompson.

Ekizlea/Productor: James B. Harris.

Argazkia/Fotografía: George Krause.

Musika/Música: Gerald Fried.

Muntaia/Montaje: Eva Kroll.

Aktoreak/Intérpretes: Kirk Douglas, Ralph Meeker, Adolphe Menjou, George MacReady, Wayne Morris, Richard Anderson, Joseph Turkel, Christiane Kubrick.

Zinexit classic / Un clásico del cine

Paths of glory filmaren bertsioa, UCLAK berritua (Kaliforniako Unibertsitatea, Los Angeles). Zinemaren historiako film antibelizarik onenetakoa da, I. Mundu Gerran kokatua eta benetako gertaeretan oinarritua.

Luis Buñuelek miresten zuen *Senderos de Gloria* filma egin ahal izateko, Kirk Douglasek United Artists produkzio-etxearen aurrean esku hartu behar izan zuen. Milioi bat dolarreko aurrekontuarekin, Municetik hurbil filmatu zen. Aktorearen eta zuzendariaren artean gatazka emankorra izan zuten, tratamendu dramatikoari buruzko ikuspegi desberdinak zituztelako. Bien artean, film iluna eta emozionalki asaldatzailea sortu zuten, eta Douglasek arrazoimenaren ahotsa eta humanismo liberala erantsi zizkion filmari, Kubrick-en ikuspegi gogor eta traumatikoa leunduz. Horrela sortu zen zinemako maisulana.

Eraso bat prestatzeko, Dax-ek (Kirk Douglas) bi minutu besterik ez ditu behar; zortzi plano ditu eta une ikonikoa da. Guztia tonu grisetan agertzen da, eta gizonek, nekatuta, lubakiaren bi aldeetan, ia dokumentuen egiazkotasuna transmititzen digute. Dax aurrerantz doa ilunki, jaurtigaian eta metraila sakanatzen duten leherketen txistu akutuen erdian. Azkenaurreko hartualdian, kamera, Dax-en ikuspuntua hartuz, ke- eta laino-hodei batean zehar mugitzen da, eta mamu-irudi gutxi batzuk baino ez dira ikusten, gizakiak dagoeneko hilda dauden azpimundu batera bidaiatzen ariko balitz bezala.

Versión restaurada por la UCLA (University of California, Los Angeles) de Paths of glory, uno de los mejores filmes antibelicistas de la historia del cine, enmarcado en la I Guerra Mundial y basado en hechos reales.

Admirada por Luis Buñuel, Senderos de gloria pudo hacerse gracias a la intervención de Kirk Douglas frente a la productora United Artists. Con un presupuesto de 1 millón de dólares, se rodó cerca de Munich y supuso un productivo conflicto entre el actor y el director, cuyas miradas diferían sobre el tratamiento dramático. Entre ambos, crearon una película oscura y emocionalmente perturbadora en la que Douglas aporta la voz de la razón y el humanismo liberal, atemperando la visión dura y traumática de Kubrick, dando lugar a una obra maestra del cine.

El avance de Dax (Kirk Douglas) en la preparación para un ataque, dura solo dos minutos, contiene ocho planos y es un momento icónico. Todo aparece en tonos grises y los hombres, cansados, a ambos lados de la trinchera, nos transmiten una autenticidad casi documental. Dax camina sombriamente hacia adelante en medio de los agudos silbidos de los proyectiles y de las explosiones que dispersan la metralla. En la penúltima toma, la cámara, asumiendo el punto de vista de Dax, se mueve a través de una nube de humo y niebla en la que solo se ven unas pocas figuras fantasmales, como si estuviera viajando a un inframundo donde los hombres ya están muertos.

Beste urte batez luzatzen diegu ZINEXITen ekitaldi berri bat LHko ikasleei Giza Eskubideak irakaskuntzan jorra ditzaten. Ekitaldi honetarako bereziki egindako materiala prestatu dugu.

Un curso más, ZINEXIT se extiende a los y las escuelas de EPO para trabajar los Derechos Humanos en la enseñanza. Para esta sesión hemos elaborado un material didáctico específico.

Terra Willy

Frantzia, 2019, 90 min., Animazioa.

Zuzendaria/Director: Eric Tosti

Gidoia/Guión: David Alaux, Eric Tosti, Jean-François Tosti

Musika/Música: Olivier Cussac

Muntaia/Montaje: Jean-Christian Tassy

Willy mutil koskorra espazioan zehar bidaian dabil gurasoekin. Espazio ontzia istripuz suntsituko zaie, Willy ontzitik kanporatua izango da larrialdietarako kapsula batean, eta gurasoengandik urrun, esploratu gabeko planeta basati batean lur hartuko du.



Willy es un niño que viaja con sus padres en una misión por el espacio. Cuando se destruye por accidente su nave espacial, Willy sale despedido en una cápsula de emergencia, alejándose de sus padres y aterrizando en un planeta salvaje e inexplorado.

Bosa!

Bilboko Udaleko Lankidetzza, Bizikidetzza eta Jaietako Sailak BOSA! programa antolatzen du ZINEXIT astean zehar. IrudiBERRIA Elkartearena da, Bilboko DBHko ikastetxeetara zuzendutako Aniztasunaren alde eta Diskriminazioaren aurkako ekimen hau.

Edizio honetako programak FILM LUZE bat eskaintzen du, giza eskubideen garapena lantzeko material didaktiko zehatzarekin batera.

El Área de Cooperación, Convivencia y Fiestas del Ayuntamiento de Bilbao organiza durante la semana de ZINEXIT el programa BOSA!, una iniciativa de irudiBERRIA Elkarte por la Diversidad y contra la Discriminación, dirigida a los centros escolares de ESO de Bilbao.

En esta edición el programa incluye un LARGOMETRAJE y un material didáctico específico para trabajar en el desarrollo de los derechos humanos.

Binti, mugarik gabeko youtuberra

Belgika, 2019, 90 min., Fikzioa

Zuzendaria/Directora: Frederike Migom

Gidoia/Guión: Frederike Migom

Ekoizlea/Productora: Kathleen Goossens

Argazkia/Fotografía: Joachim Philippe

Musika/Música: Le Motel

Muntaia/Montaje: Clemence Samson

Aktoreak/Intérpretes: Bebel Tshiani, Mo Bakker, Baloji, Joke Devynck, Caroline Stas, Aboubakr Bensaihi, Tatyana Beloy.

Bintik 12 urte ditu, Kongon jaio zen, baina txiki-txikitatik Belgikan bizi da bere aita Jovialekin. Gure ikusleen hizkuntza emozionaletik oso gertu, film honek gai oso larriak jorratzen ditu; esaterako, hainbat arrazoiengatik beren jatorrizko herrialdea utzi behar izan duten pertsonen asilo eskubidea urratzea.

Binti tiene 12 años, nació en el Congo, pero vive en Bélgica con su padre Jovial desde muy pequeña. De una forma muy cercana al lenguaje emocional de nuestros espectadores (as), esta película acerca temas tan graves como la vulneración del derecho de asilo a personas que, por distintas razones, se han visto obligadas a dejar su país de origen.

ANTOLATZAILEA / ORGANIZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTI POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

KOORDINATZAILEA / COORDINA



KOLABORATZAILEAK / COLABORADORES



ESKERRAK / AGRADECIMIENTOS

